

IX TXIRRITA MENDI IBILALDIA

2018 KO MAIATZAK 20



LUZEA 40Km ETA 3000m DESNIBELA

EUSKAL HERRIKO 17. IRAUPEN LUZEKO IBILALDIEN ZIRKUITUARAKO BALIAGARRIA

IRTEERA 6:00 ETAN BIXENTE ATERPETIK (AMEZKETA)

MOTZA 22Km ETA 1500m DESNIBELA

IRTEERA 8:30 ETAN BIXENTE ATERPETIK (AMEZKETA)



OARGI MENDI ELKARTEA

Tolosako OARGI Mendi Elkarteak lau urtetik behin Aralarko gailurretan zehar mendiko ibilaldi bat antolatzen du, hain zuzen ere Txirrita Mendi Ibilaldia delakoa. Bernardo Bidaola Atxega - Txirrita -, gure elkarteko bazkide izandakoaren oroimenez, mendizaletasuna eta abertzaletasunaren eredutzat hartu dugulako. Aurten aralarko gainetatik egiten den bederatzigarren ibilaldia ospatzen da, Txirrita Mendi ibilaldia izenarekin, berriz, zortzigarrena. Mendiko zeharbide honek Euskal Herriko Federazioak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu. Urtetik urtera euskal mendizaleen artean ohizkoa bihurtu da mendi martxa hori. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu egin gaituzten guztiei.

1- TXIRRITA IBILALDIA. Mendi ibilaldia Tolosako OARGI Mendi Elkarteak antolatzen du. Ibilaldia Aralar mendikatean egingo da 2018ko Maiatzaren 20 ean. Amezketako Bixente Aterpean (Aierbenea etxean), goizeko sei etan luzeari eta zortzi terdian motzari emango zaie hasiera.

2- ERANTZUNKIZUNAK. Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendi ibilbide bat dela eta kirol jarduera horren arriskuak dituela. Oargi Mendi Elkarteak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko egiten diote elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemizazioak eskatzeari. Mendi jarduera hau egiteko federatua egotea beharrezkoa da. Elkarteak jarduera hain bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

3- INFORMAZIOA/IZEN EMATEA. Izen ematea Apirilak 12tik aurrera egin ahal izango da Interneteko helbidean : www.zirkuitua.com, 16€ ordaindu beharko dira.

4- ZERBITZUAK. Elkarteak lokal bat prestatuko du bezperan bertan lo egin nahi dutenentzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek, antolakuntzari jakin arazi beharko diote 665704142 telefonoa deituz.

5- IRTEERA. Zeharkaldi luzea goizeko 6:00etan hasiko da eta motza 8:30 etan. Irteeran txartel pertsonalizatua emano zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zenbakiarekin. Era mailakatuan emango da irteera, gutxi gora behera 50 parte-hartzaile minutuko.

6- KONTROLAK. Parte-hartzaileek goian azaldutako ibilbidea egin behar dute eta derrigor igaro behar dute ezarritako kontroletatik. Kontrol horietan martxa-txartela erakutsi beharko dute zigilua jartzeko. Kontrolak txartelean adieraztiako gutxieneko eta gehieneko denbora-tartean egongo dira zabalik. Ibilbide luzearen iraupena gutxi gora behera 12 ordukoa da eta motzarena 8 ordukoa.

7- BALIZAK. Ibilbideak plastikozko zintzen bidez markatuta egongo dira. Antolaketa kideek azken parte-hartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoz eta ibilbidearen amaiera emanez.

8- HORNIDURA. Parte-hartzaileei hau egiteko beharrezko diren elikagaia eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Antolaketa kideek ura eta gutxieneko hornidura jarriko dute. Unagako Putzua eta gero gainera Igaratzen salda, kafea, haragi egosia eta abar.

9- ERRETIRATZEA. Ibilbidearen zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolaketa kideei eman behar diete txartela, edo bestela martxa-txartelaren atzealdeko telefono zenbakia jakinarazi.

10- BUKAERA. Ibilbidearen bukaeran txartela kontrolen zigilu guztiekin jarrita erakusten dutenei diploma eta kamiseta bana emango zaie.



TOLOSAKO UDALA

SERIGRAFIA
ARTizar
Amezketako

Aralar
Kirolak

AMEZKETAKO UDALA

CAFES ZABALA



Villanueva Aralar

BIXENTE ATERPEA